

## **2.BALIOA**

Gure produktuak zenbait onura ekar diezaioke pertsoneri.

Argi dago, bizitzan edozeinek ordaintzeko prest egongo litzatekeen gauza bakarrerako, denbora izango litzatekeela, izan ere, gure betebeharez aparte, sobratzen zaigun tarte horretan, deskonektatu dezagun, guztioi zerbait egitea gustatzen zaigu, hala nola, eskolaz kanpoko ekintzaren bat, irakurtzea, familiarekin edota lagunekin egon, etxerako lanak egin...Arazoa dator, denbora hori gutxi izanda, gainera gaizki aprobetxatzen dugunean, planifikazioa eskasa dela eta. Egoera honetan, gure produktua arazo honen konponbidea da.

Alde batetik, oso eraginkorra den ideia da. Batez ere, dituen funtzio nagusiengatik, ahoz funtzionatuko dutenak, idazten denbora galdu beharrean. Lehenik, agenda izango du, beraz edozein egunetan hitzorduak edo gogoratu beharrekoak apuntatu, eta erlojuak berak abisatu egingo du, bezeroak eskatutako egunean. Bigarrenik, eguraldiaz informatzen du eta adibidez, euria egiteko probabilitateren bat egonez gero, euritakoa hartzeko gomendatuko du. Hau da, etxetik irten eta ordubete geroago etxera bueltatzeko beharra euriagatik ez da gertatuko, erloju honek ezustekoez jakinaraziko duelako. Hirugarrenik, GPS-a edukiko du, eta kalean bertan, toki ezezagunen batera joateko argibide zehatzak emango ditu, bezeroa tokira eraman arte, noski, leku motzagoetik. Azkenik, loaldiaren datuak emango ditu: zenbat ordu lo, zenbat ordu lo sakona, zenbat ordu lo egin beharko zenukeen...eta horrekin guztiarekin ordutegi jakin bat planteatu, lo ordu kopuru egokia egiteko eta bezeroa osasuntsuen mantentzeko.

Beraz, gure produktuaren helburua nagusia, zure burua antolatzen laguntzea da eta beraz, denbora aurrezten lagundu.